GARDENTASUNA
TRANSPARENCIA

# TXOSTENA: PUBLIZITATE AKTIBOAN ETA INFORMAZIO PUBLIKORAKO SARBIDEAN ERRENTERIAKO UDALAK DITUEN OBLIGAZIOEN BETETZE MAILA. 2019. URTEA.

# INFORME SOBRE GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LAS OBLIGACIONES DE PUBLICIDAD ACTIVA Y ACCESO A LA INFORMACIÓN PÚBLICA DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA AÑO 2019.

Erренteriako Udala

# 1. Hitzaurrea
# 1. Introducción

## 1.1 Araudia
## 1.1 Normativa

**Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 66. artikulua betetze aldera aurkezten da Errenteriako Udalaren publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharren betetze-mailari buruzko txosten hau, 2019ari dagokiona.**

En cumplimiento del artículo 66 de la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi se presenta este informe sobre el grado de cumplimiento de las obligaciones de publicidad activa y acceso a la información pública que corresponde al año 2019.

## 1.2 Udal helburua eta tresneria
## 1.2 Objetivo municipal y herramientas

**Errenteriako Udalak gardentasunarekin duen konpromisoa sendoa eta egonkorra da. Herritarrek kudeaketa publikoari buruzko informazioa kontsultatzeko aukera izan dezaten, Udala gero eta baliabide gehiago jartzen ari da denon eskura. Honako hau da aipatutako baliabideen zerrenda:**

El Ayuntamiento de Errenteria tiene un compromiso sólido y estable con la transparencia. Para que la ciudadanía tenga la opción de consultar información sobre la gestión pública, el Ayuntamiento está facilitando cada vez más recursos al alcance de todos. La relación de los recursos mencionados es la siguiente:

| | |
|---|---|
| **Gadentasun ataria**<br>Portal de transparencia | **Udal webgunearekin batera, gardentasun informazioa eta edukiak aurkitzeko atari nagusia da. 2016 urtetik hona informazioaz hornitzen joan da, aldian aldian.**<br><br>Junto con la web municipal, es el principal portal para encontrar información y contenidos de transparencia. El volumen de información ha ido creciendo periódicamente desde 2016. |

| | |
|---|---|
| **Bideoakten sistema**<br>Sistema de videoactas | **Sistema honek Udalbatzarraren bideo-aktak eskuratzeko aukera ematen dio edozein pertsonari.**<br><br>Este sistema permite a cualquier persona acceder a las videoactas del Pleno. |
| **Datu-irekien ataria**<br>Portal de datos abiertos | **Gardentasuna ulertzeko beste modu bat da. Datu ireki, gordin eta berrerabilgarriek balio publiko edota erantsiko eduki berriak sortzeko aukera ematen diete herritarrei.**<br><br>Es otra forma de entender la transparencia. Los datos abiertos, crudos y reutilizables permiten a la ciudadanía generar nuevos contenidos de valor público y/o añadido. |
| **Aurrekontua denontzat**<br>Presupuesto fácil | **Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 57. artikuluan jasotzen da: ”aurrekontuak argitara emango dira osorik eta eguneratuta, modu erraz, argi eta grafiko batean”. Tresna honek aipatutakoa betetzea errazten du.**<br><br>El artículo 57 de la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, recoge que "los presupuestos se publicarán íntegramente y actualizados de forma sencilla, clara y gráfica". Este instrumento facilita el cumplimiento de lo mencionado. |
| **2019–2023 Agintaldi Planaren jarraipena egiteko tresna**<br>Instrumeto de seguimiento del Plan de Mandato 2019-2023 | **Agintaldi planaren betetze-mailaren berri ematea da tresna berri honen helburua. 2019. urteko abenduan jarri zen martxan.**<br><br>El objetivo de esta nueva herramienta es dar a conocer el grado de cumplimiento del plan de mandato. Se puso en marcha en diciembre de 2019. |

**Azkenik, Herri Biziak udal organoen jarduerari buruz berri asko argitaratzen ditu; beraz, udal komunikabideak bere rola betetzen du Errenteriako Udala gardenago egiteko esfortzu horretan ere.**

Por último, Herri Bizia pública muchas noticias relativas a la actividad de los órganos municipales; por lo tanto, el medio de comunicación municipal desempeña también su papel en este esfuerzo por hacer más transparente el Ayuntamiento de Errenteria.

## 1.3 Udal antolakuntza
## 1.3 Organización municipal

**Modernizazioa, Informazioaren Gizartea eta Herritarren Parte-hartzea azpisailak gardentasunarekin lotura duten eginkizunetan du ardura. Azken hilabeteotan hainbat aldaketa bideratu dira publizitate aktiboaren betebeharrei aurre egiteko moduan. Modernizazio azpisailetik bultzada bat eman zaio aipatutako betebeharrak zeharkakoak izan daitezen.**

**Horretarako, Modernizazio azpisailak bilera erronda deitu du. Bilera horietan hemendik aurrera bakoitzak argitaratuko duen informazioa adostu eta zehaztu da beste azpisailekin. Honako azpisail hauen artean izan da lan-kargaren banaketa: Idazkaritza Orokorra, Giza-baliabideak, Hirigintza, Kontratazioa eta Ondarea, Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa eta, azkenik, Aholkulari Juridikoak ere parte hartuko du.**

**Lan egiteko modu berria egonkortuta dagoenean (ebatzi gabeko kontuak gelditzen baitira oraindik), Modernizazio azpisailaren eginkizunak izango dira:**

- **udal esfortzua koordinatu,**
- **betetze-mailaren jarraipena egin,**
- **kalitate hobekuntzak sustatu**
- **...eta, noski, bere esparruko informazioa argitaratzea.**

La subárea de Modernización, Sociedad de la Información y Participación Ciudadana se encarga de las tareas relacionadas con la transparencia. En los últimos meses se ha iniciado el cambio en la forma de hacer frente a las obligaciones de publicidad activa. Desde la subárea de modernización se ha impulsado que dichas obligaciones sean transversales.

Para ello, Modernización ha convocado una ronda de reuniones en la que se ha acordado y concretado con las subáreas la información que cada una de ellas publicará a partir de ahora. El reparto de la carga de trabajo se ha realizado entre las siguientes subáreas: Secretaría General, Recursos Humanos, Urbanismo, Contratación y Patrimonio, Hacienda y Desarrollo Económico y, por último, el Asesor Jurídico también participará.

Una vez consolidada la nueva forma de trabajar (ya que quedan cuestiones pendientes), las funciones de Modernización serán:

- coordinar el esfuerzo municipal,
- hacer seguimiento del grado de cumplimiento,
- promover mejoras en la calidad
- .. y, por supuesto, publicar información de su ámbito.

# 2. Publizitate aktiboaren betetze-maila
# 2. Grado de cumplimiento de la publicidad activa

## 2.1 Ikuspegi orokorra
## 2.1 Perpectiva general

**Udal gardentasunaren egoerari buruzko diagnosia egitea enkargatu zuen Errenteriako Udalak. Aipatutako lana 2020ko urtarrilaren hasieran egin zen.**

**Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen bigarren kapituluan 6 esparrutan taldekatuta daude publizitate aktiboaren betebeharrak. Zehazki, honako hauek dira esparruak:**

- **Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa**
- **Informazio juridiko-normatiboa**
- **Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa**
- **Kudeaketa publikoari buruzko informazioa**
- **Toki-erakundeen zerbitzurako langileei buruzko informazioa**
- **Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzkoa**

**Beraz, diagnosiaren emaitzak Euskadiko Toki Erakundeei buruzko legearen egitura jarraituz azalduko dira.**

El Ayuntamiento de Errenteria encargó la realización de un diagnóstico sobre el estado de la transparencia municipal. Dicho trabajo se realizó a principios de enero de 2020.

El capítulo segundo de la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi agrupa las obligaciones de publicidad activa en 6 ámbitos. En concreto, los ámbitos son los siguientes:

- Información institucional y organizativa
- Información jurídico-normativa
- Información sobre políticas públicas locales y cartera de servicios
- Información sobre gestión pública
- Información sobre el personal al servicio de las entidades locales
- Información económico-financiera y presupuestaria

Por tanto, los resultados del diagnóstico se expondrán siguiendo la estructura de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi.

| **Esparrua**<br>*Ámbito* | **Batezbestekoa: argitaratze-maila**<br>*Media: grado de publicación* | **Batezbestekoa: eguneratze-maila**<br>*Media: grado de actualización* | **Eskakizun kopurua**<br>*Número de requisitos* |
|---|---|---|---|
| **Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa**<br>*Información institucional y organizativa* | 86.36% | 98.30% | 11 |
| **Informazio juridiko-normatiboa**<br>*Información jurídico-normativa* | 50% | 50% | 3 |
| **Politika publikoen eta zerbitzu zorroaren gaineko informazioa**<br>*Información de políticas públicas y de la cartera de servicios.* | 25% | 33.33% | 3 |
| **Kudeaketa publikoari buruzko informazioa**<br>*Información sobre gestión pública* | 85.71% | 78.57% | 7 |
| **Toki-erakundeen zerbitzurako langileei buruzko informazioa**<br>*Información sobre el personal al servicio de las entidades locales* | 100% | 100% | 5 |
| **Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioa**<br>*Información económico-financiera y presupuestaria* | 78.57% | 42.86% | 7 |
| **Gardentasunari eta informazio publikorako sarbideari buruzko betetze-mailaren jarraipena**<br>*Seguimiento del grado de cumplimiento de la transparencia y del acceso a la información pública* | 100% | 100% | 1 |
| **Totala**<br>*Total* | 79.05% | 75.17% | 37 |

## 2.2 Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa

## 2.2 Información institucional y organizativa

**Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 52. artikuluan erakundeari eta antolakundeari buruzko informazioaren argitaratze-betebeharrak zerrendatzen dira. Betetze-maila %86.36 da; eguneratze-maila; aldiz, %98.30. Datu horiek adierazten dute oraindik informazioa argitaratzea falta dela; hala ere, argitaratuta dagoen ia guztia -%98.30- eguneratuta dagoela.**

El artículo 52 de la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, enumera los requisitos de publicación de la información institucional y organizativa. El grado de cumplimiento es del 86.36%, mientras que el grado de actualización es del 98.30%. Estos datos indican que aún falta por publicar la información; sin embargo, prácticamente todo lo publicado - el 98.30%- está actualizado.




**Esparru honetan bi erronka izango ditu 2020. urtean Errenteriako Udalak. Batetik, Udal Aholku Kontseiluen jarduerari buruz berri ematea eta; bestetik, hautetsi-karguei buruz argitaratzen den informazioa (curriculuma eta interakzio-moduak) estandarizatzea. Egun, hautetsi-kargu batzuen fitxa egoki beteta dago eta beste batzuena, ordea, hutsik dago. Beraz, hautetsi-kargu bakoitzeko argitaratuko diren gutxieneko datuak zeintzuk izango diren finkatu beharra dago.**

El Ayuntamiento de Errenteria afronta en 2020 dos retos en este ámbito. Por un lado, informar sobre la actividad de los Consejos Asesores Municipales y, por otro, estandarizar la información que se publica sobre los cargos electos (currículum y formas de interacción). Actualmente la ficha de algunos cargos electos está correctamente cumplimentada y la de otros está vacía. Por tanto, es necesario establecer los datos mínimos que se publicarán por cada cargo electo.

## 2.3 Informazio juridiko-normatiboa

## 2.3 Información jurídico-normativa

**Legearen 53. artikuluan erakundeari eta antolakundeari buruzko informazioaren argitaratze-betebeharrak zerrendatzen dira. Betetze-maila %50 da; baita eguneratze-maila. Betetze-maila altua ez iruditu arren, kontuan hartu behar da esparru honetan 3 betebehar bakarrik jasotzen direla; hau da, item bakoitzak %33.33ko pisua dauka estatistikan.**

En el artículo 53 de la ley se enumeran los requisitos de publicación de la información sobre la materia jurídico-normativa. El grado de cumplimiento es del 50%, también el grado de actualización. Aunque el grado de cumplimiento no parezca alto, hay que tener en cuenta que en este ámbito sólo se recogen 3 obligaciones, es decir, cada ítem tiene un peso del 33.33% en la estadística.




**Hiri planeamenduaren aldaketen harira egingo diren herritar partaidetza prozesuen txostenak edota memoriak argitaratzea da esparru honetako erronkarik argiena eta estatistika hobetzeko biderik azkarrena.**

El reto más claro en este ámbito y la vía más rápida para mejorar la estadística es la publicación de informes y/o memorias de los procesos de participación ciudadana que se vayan a realizar con motivo de los cambios en el planeamiento urbano.

## 2.4 Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren informazioa

## 2.4 Información de políticas públicas locales y de la cartera de servicios

**Legearen 54. artikuluan tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko argitaratze-betebeharrak zerrendatzen dira. Betetze-maila %25 da eta eguneratze-maila %33 da. Diagnosiaren emaitzarik txarrenak esparru honetan ditu Errenteriako Udalak.**

El artículo 54 de la Ley enumera las obligaciones de publicación de las políticas públicas locales y de la cartera de servicios. El grado de cumplimiento es del 25% y el grado de actualización es del 33%. Los peores resultados del diagnóstico los tiene en este ámbito el Ayuntamiento de Errenteria.




**Errenteriako Udalak lehendabiziko bi zerbitzu-karten ekoizpen prozesua martxan jarri du. Bi zerbitzu horiek izango dira: Zu! Arreta Zerbitzua eta Gizarte Zerbitzuak. Aurrera pausu horrek betetze-maila hobetzen asko lagunduko du; hala ere, esparru honetan jasotzen diren betebeharrak betetzeko lan handia egin beharko du toki erakundeak.**

El Ayuntamiento de Errenteria ha puesto en marcha el proceso de producción de sus dos primeras cartas de servicios. Esos dos servicios serán: Zu! Arreta Zerbitzua y Servicios Sociales. Este paso ayudará a mejorar el grado de cumplimiento; sin embargo, la entidad local deberá realizar una importante labor para cumplir con las obligaciones que se recogen en este ámbito.

## 2.5 Kudeaketa publikoari buruzko informazioa

## 2.5 Información sobre gestión pública.

**Legearen 55. artikuluan kudeketa publikoari buruzko argitaratze-betebeharrak zerrendatzen dira. Esparru honetan kontratazioarekin, diru-laguntzekin eta hitzarmenekin lotura duen informazioa jasotzen da. Argitaratze-maila %86 da, emaitza ona. Hala ere, 7 puntuko aldea dago eguneratze-mailarekin; hau da, argitaratuta dagoen informazio guztia ez da maiztasun egoki batekin eguneratzen.**

El artículo 55 de la Ley enumera las obligaciones de publicación relativas a la gestión pública. En este ámbito se recoge información relacionada con la contratación, subvenciones y convenios. El nivel de publicación es del 86%, un buen resultado. Sin embargo, existe una diferencia de 7 puntos con el nivel de actualización, es decir, toda la información publicada no se actualiza con una periodicidad adecuada.




**Esparru honetan bi erronka nagusi izango ditu 2020. urtean Errenteriako Udalak. Batetik, hirigintzarekin lotura duten hitzarmenen zerrenda argitaratzea (legean jasotako xehetasunak jarraituz). Bestetik, hainbat kasutan argitaratuta dagoen informazioaren eguneratze-maila hobeto zaintzea.**

El Ayuntamiento de Errenteria afronta en el año 2020 dos grandes retos en este ámbito. Por un lado, la publicación de la lista de convenios relacionados con el urbanismo siguiendo las especificaciones indicadas en la ley y, por otro, cuidar mejor en algunos casos la actualización de la información ya publicada.

## 2.6 Toki-erakundeen zerbitzurako langileei buruzko informazioa

## 2.6 Información sobre el personal al servicio de las entidades locales

**Legearen 56. artikuluan toki-erakundeen zerbitzurako langileei buruzko informazioaren gaineko argitaratze-betebeharrak zerrendatzen dira. Betetze-mailari erreparatuz, diagnosiaren esparru honetan emaitza onenak ditu Errenteriako Udalak. Emaitza bikain hauen lorpenean Modernizaio eta Giza-baliabideen azpisailek egindako elkarlana azpimarratu behar da.**

El artículo 56 de la ley enumera las obligaciones de publicación de la información relativa al personal al servicio de las entidades locales. Atendiendo al grado de cumplimiento, el Ayuntamiento de Errenteria cuenta con los mejores resultados en este ámbito del diagnóstico. En la consecución de estos excelentes resultados cabe destacar la colaboración de las subáreas de Modernización y Recursos Humanos.



## 2.7 Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzkoa

## 2.7 Información económico financiera y presupuestaria

**Legearen 57. artikuluan Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioaren gaineko argitaratze-betebeharrak zerrendatzen dira. Honako esparru honetan aurrekontuari, zorrari edo udal higiezinei buruzko informazioa jasotzen da, besteak beste. Nahiz eta argitaratze-maila ona izan, eguneratze-mailari erreparatuz, udal erakundean informazioa eguneratze ohitura ez dela egonkortu nabarmendu dezakegu.**

En el artículo 57 se enumeran las obligaciones de publicación relativas a la información económico-financiera y presupuestaria. En este ámbito se recoge información sobre presupuestos, deuda o inmuebles municipales, entre otros. Si bien el nivel de publicación es bueno, atendiendo al grado de actualización, podemos destacar que en la entidad municipal no se ha estabilizado el hábito de actualizar la información.




**Eguneratze-maila zaintzetik aparte, esparru honetan Errenteriako Udalaren argitaratze erronkak hiru izango dira. Lehendabizikoa, 2019. urteko kontu orokorrak plazaratzea; bigarrena, ordezkari politikoen ordainsariak (kontzeptu guztiak hartuta) publiko egitea; hirugarrena eta azkena, udal higiezinen zerrenda osoa argitaratzea; izan ere, egun bakarrik lokalei buruzko informazioa argitaratzen da.**

Al margen de cuidar el nivel de actualización, en este ámbito los retos editoriales del Ayuntamiento de Errenteria serán tres. El primero, la publicación de las cuentas generales del año 2019; el segundo, hacer públicas las retribuciones de los representantes políticos por todos los conceptos; el tercero y último, la publicación de la relación completa de inmuebles municipales, ya que actualmente sólo se publica información sobre locales.

# 3. Gardentasun atarian gehien kontsultatu diren edukiak

# 3. Contenidos más vistos en el portal de transparencia

**2019. urtean 17.490 bisita izan zituen gardentasuna.errenteria.eus atariak, horietako 12.775 "orri bakarretara bisitak" izan ziren. Halaber, web-orrian egondako batesbesteko denbora minutu bat eta bi segundo izan ziren. Honako taula honetan datuak azaltzen dira.**

En el año 2019 se registraron 17.490 visitas al portal gardentasuna.errenteria.eus, de las cuales 12.775 fueron a visitas a páginas únicas. El tiempo medio en la web fue de un minuto y dos segundos. En la siguiente tabla se muestran los datos.

| # | **orria**<br>*página* | **Bisita kopurua**<br>*nº de visitas* | **Orri bakarretara bisita kopurua**<br>*nº visitas de páginas únicas* | **Batez besteko denbora orrialdean**<br>*Promedio de tiempo en la página* |
|---|---|---|---|---|
| 1 | /es/ | 3120 | 2294 | 00:00:49 |
| 2 | / | 1674 | 1138 | 00:01:09 |
| 3 | /es/4-altos-cargos-y-responsables/ | 853 | 512 | 00:00:22 |
| 4 | /es/transparencia/ | 785 | 566 | 00:00:14 |
| 5 | /es/1-organizacion-planificacion-y-patrimonio/1-1-organizacion/rpt-y-plantilla-de-personal-del-ayuntamiento-para-el-ejercicio-2017/ | 638 | 522 | 00:02:52 |
| 6 | /es/1-organizacion-planificacion-y-patrimonio/ | 547 | 359 | 00:00:39 |
| 7 | /es/3-economia-finanzas-presupuestos-y-estadisticas/ | 517 | 347 | 00:00:39 |
| 8 | /gardentasuna/ | 410 | 282 | 00:00:44 |
| 9 | /es/7-contratos-convenios-y-subvenciones/ | 405 | 217 | 00:00:47 |
| 10 | /1-antolaketa-plangintza-eta-ondarea/ | 373 | 220 | 00:01:28 |

**Aurreko datuetatik hainbat erabiltzaileri buruzko hainbat jokabide-jardunbide ondorioztatu ditzakegu:**

1. **gardentasun-edukiak gaztelaniaz kontsultazeko joera dutela;**
2. **hautetsi- karguen ordainsariak ezagutzeak jakin-mina eragiten duela;**
3. **antolaketa, plangintza eta ondarea gardentasun atariko kategoria bisitatuena dela;**
4. **eta azkenik, lanpostuen zerrenda edukirik ikusiena dela.**

De los datos anteriores podemos deducir diversas prácticas de comportamiento sobre los usuarios:

1. los contenidos de transparencia tienden a consultarse en castellano;
2. conocer los honorarios de los cargos electos genera curiosidad;
3. organización, planificación y patrimonio es la categoría más visitada del portal de transparencia;
4. y por último, la relación de puestos de trabajo es el contenido más visto.

# 4. Informazio publikorako sarbide eskubidearen erabilera

# 4. Uso del derecho de acceso a información pública

**2019. urtean, Errenteriako Udal Artxiboak 670 informazio publiko eskaera jaso zituen eta %99.85 eskaerei erantzuna eman zitzaien. Halaber, ebazteko batez besteko epea egun batekoa izan zen. . Honako taula honetan gehien errepikatu ziren informazio-eskaerak zerrendatuta daude.**

En el año 2019 el Archivo Municipal de Errenteria recibió 670 solicitudes de información pública y el 99.85% fueron atendidas. Asimismo, el plazo medio de resolución fue de un día. En la siguiente tabla se encuentran las solicitudes de información más repetidas.

| **Esparru orokorra**<br>*Ámbito General* | **Esparru zehatza**<br>*Ámbito específico* | **Eskaera kopurua**<br>*nº de peticiones* |
|---|---|---|
| **Obrak eta hirigintza**<br>*Obras y urbanismo* | **Obra partikularrak**<br>*Obras particulares* | 186 |
| **Udal adminiztrazioa**<br>*Administración municipal* | **Udal akta liburua**<br>*Libro de actas del Ayuntamiento* | 57 |
| **Obrak eta hirigintza**<br>*Obras y urbanismo* | **Erabilera aldatzeko expedientea**<br>*Expedientes de cambio de uso* | 30 |
| **Harremanak**<br>*Relaciones* | **Kaparetasunak**<br>*Hidalguías* | 24 |
| **Kultura**<br>*Cultura* | **Kultur jarduerak**<br>*Actividades culturales* | 19 |
| **Estatistika**<br>*Estadística* | **Udal errolda**<br>*Padrones municipales* | 18 |
| **Obrak eta hirigintza**<br>*Obras y urbanismo* | **Eraikin pribatuak**<br>*Edificios particulares* | 18 |
| **Gobernua**<br>*Gobierno* | **Osoko bilkuraren aktak**<br>*Actas del Pleno del Ayuntamiento* | 15 |
| **Industriak**<br>*Industrias* | **Irekitze baimena**<br>*Licencias de apertura* | 14 |
| **Kultura**<br>*Cultura* | **Argitalpenak**<br>*Publicaciones* | 14 |

**Halaber, lanketa berezia behar zuten 162 informazio publikoko eskaera heldu ziren artxibora, %98.76 erantzun ziren eta ebazteko batez besteko epea 5 egunekoa izan zen. Gehien eskatutako informazioa honako hau izan zen: hemerotekakoa eta guerra zibilari buruzkoa, baita argazkiak ere.**

**Azkenik, gardentasuna@errenteria.eus helbide elektronikora 8 mezu heldu ziren 2019. urtean, horietatik 3 informazio eskaerak ziren. Horietatik bi erantzun ziren eta hirugarrena, herritarrari ez zitzaion zuzenean erantzun baina eskatzen zuen informazioa argitaratu zen.**

Asimismo, llegaron al archivo 162 solicitudes de información pública que requerían un tratamiento especial y el plazo medio para su resolución fue de 5 días. La información más solicitada fue la de hemeroteca y guerra civil, así como fotografías.

Finalmente, a la dirección de correo electrónico gardentasuna@errenteria.eus llegaron 8 mensajes en el año 2019, de los cuales 3 eran solicitudes de información. Dos de ellas se contestaron y la tercera se publicó la información requerida aunque no se llegó a responder al ciudadano.

# 5. Eranskinak

# 5. Anexos

## 5.1 Diagnosia euskaraz

## 5.1 Diagnóstico en euskera

| Esparrua | Publizitate aktiboaren betebeharra | LILE-n | Argitaratzen da? | Eguneratzen da? |
|---|---|---|---|---|
| Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa | Toki-erakundearen organoak, beharrezkoak eta osagarriak | 52.1 a) | 1.00 | 0.81 |
| Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa | Hautetsien curriculuma eta interakzio-moduak | 52.1 b ); 52. 2 | 0.50 | 1.00 |
| Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa | Agintaldintaldirako plana | 52.1 c) | 1.00 | 1.00 |
| Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa | Alkatearen eta zinegotzien arduraldi-araubidea | 52.1. d) | 1.00 | 1.00 |
| Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa | Aldi baterako konfidantzazko pertsonala | 52.1. e ) | 1.00 | 1.00 |
| Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa | Toki-ordezkarien jarduerei eta ondasunari buruzko urteroko aitorpenak | 52.1. f ) | 1.00 | 1.00 |
| Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa | Talde politikoei buruzko informazioa | 52.1 g) | 1.00 | 1.00 |
| Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa | Udalaren antolamendu-egitura | 52.1 h) | 1.00 | 1.00 |
| Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa | Udal Aholku kontseiluak | 52.1 i ) 53 c ) | 0.50 | 1.00 |
| Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa | Erakunde instrumentalak | 52.1 j) | 0.50 | 1.00 |

| Esparrua | Publizitate aktiboaren betebeharra | LILE-n | Argitaratzen da? | Eguneratzen da? |
|---|---|---|---|---|
| Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa | Plan eta programak | 52.1 k) | 1.00 | 1.00 |
| Informazio juridiko-nomatiboa | Ordenantza eta erregelamendu proiektuak | 53 a) | 1.00 | 1.00 |
| Informazio juridiko-nomatiboa | Zuzenbide interpretazioak | 53 b) | 0.00 | 0.00 |
| Informazio juridiko-nomatiboa | Herritarren parte-hartzeari buruzko txostenak | 53 d ) eta e ) | 0.50 | 0.50 |
| Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa | Zerbitzu-zorroa | 54 a) 54. d ) | 0.00 | 0.00 |
| Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa | Zerbitzu-kartak | 54. b ) | 0.00 | 0.00 |
| Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa | Zerbitzu publikoen ordutegia, prezio publikoak eta udal tasak | 54. c ) | 0.75 | 1.00 |
| Kudeaketa publikoari buruzko informazioa | Kontratuak (ez txikiak) | 55 a) | 1 | 1 |
| Kudeaketa publikoari buruzko informazioa | Egindako kontratuei buruzko estatistikak | 55. b) | 1 | 1 |
| Kudeaketa publikoari buruzko informazioa | Kontratistei jarritako zigorrak | 55. c) | 0.5 | 1 |
| Kudeaketa publikoari buruzko informazioa | Suntsiarazitako kontratuen zerrenda | 55 d) | 1 | 1 |
| Kudeaketa publikoari buruzko informazioa | Kontratu txikiak | 55 e) | 1 | 0 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Kudeaketa publikoari buruzko informazioa | Hitzarmenak eta kudeaketa gomendioak | 55 g) eta h) | 0.50 | 0.50 |
| Esparrua | Publizitate aktiboaren betebeharra | LILE-n | Argitaratzen da? | Eguneratzen da? |
| Kudeaketa publikoari buruzko informazioa | Diru-laguntzak | 55. i ) | 1 | 1 |
| Toki-erakundeen zerbitzurako langileei buruzko informazioa | Enplegu publikoaren eskaintzak | 56 a) | 1 | 1 |
| Toki-erakundeen zerbitzurako langileei buruzko informazioa | Toki-erakundearen zerbitzurako langileen formakuntza | 56 b) | 1 | 1 |
| Toki-erakundeen zerbitzurako langileei buruzko informazioa | Ordezkaritza sindikala | 56 c) | 1 | 1 |
| Toki-erakundeen zerbitzurako langileei buruzko informazioa | Lanpostuen zerrenda | 56 d) | 1 | 1 |
| Toki-erakundeen zerbitzurako langileei buruzko informazioa | Bateragarritasun adierazpenak (langile publikoak) | 56 e) | 1 | 1 |
| Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioa | Aurrekontuak | 57. a) | 1 | 1 |
| Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioa | Urteko kontuak | 57. b) | 0 | 0 |
| Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioa | Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna | 57 c) | 1 | 0.5 |
| Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioa | Diru-sarrerak eta gastuak | 57. d) | 1 | 0.5 |
| Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioa | Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea | 57. e) | 1 | 0.5 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioa | Udal higiezinak | 57 f ) | 0.5 | 0 |
| Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioa | Ordezkari politikoen ordainsariak | 57 g ) | 1 | 0.5 |
| Gardentasunari eta informazio publikorako sarbideari buruzko betetze-mailaren jarraipena | Udal gardentasunari buruzko urteroko txostesnak | 66 | 1 | 1 |

## 5.2 Diagnosia gaztelaniaz
## 5.2 Diagnóstico en castellano

| Ámbito | Obligación de publicidad activa | LILE | ¿se publica? | ¿se actualiza? |
|---|---|---|---|---|
| Información institucional y organizativa | Órganos necesarios y complementarios de la entidad local | 52.1 a) | 1.00 | 0.81 |
| Información institucional y organizativa | Currículum y modos de interacción con cargos electos | 52.1 b ); 52. 2 | 0.50 | 1.00 |
| Información institucional y organizativa | Plan de mandato | 52.1 c) | 1.00 | 1.00 |
| Información institucional y organizativa | Régimen de dedicación de la Alcaldesa y l@s conjales/as | 52.1. d) | 1.00 | 1.00 |
| Información institucional y organizativa | Personal eventual (de confianza) | 52.1. e ) | 1.00 | 1.00 |
| Información institucional y organizativa | Declaraciones anuales de bienes y actividades | 52.1. f ) | 1.00 | 1.00 |
| Información institucional y organizativa | Información sobre los grupos políticos municipales | 52.1 g) | 1.00 | 1.00 |
| Información institucional y organizativa | Estructura organizativa municipal | 52.1 h) | 1.00 | 1.00 |
| Información institucional y organizativa | Consejos Asesores Municipales | 52.1 i ) 53 c ) | 0.50 | 1.00 |
| Información institucional y organizativa | Entes instrumentales | 52.1 j) | 0.50 | 1.00 |
| Información institucional y organizativa | Planes y programas | 52.1 k) | 1.00 | 1.00 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Información jurídico-normativa. | Proyectos de ordenanzas y reglamentos | 53 a) | 1.00 | 1.00 |
| Ámbito | Obligación de publicidadactiva | LILE | ¿se publica? | ¿se actualiza? |
| Información jurídico-normativa. | Interpretación del Derecho | 53 b) | 0.00 | 0.00 |
| Información jurídico-normativa. | Informes sobre participación ciudadana | 53 d ) eta e ) | 0.50 | 0.50 |
| Información de políticas públicas locales y de la cartera de servicios | Cartera de servicios | 54 a) 54. d ) | 0.00 | 0.00 |
| Información de políticas públicas locales y de la cartera de servicios | Cartas de servicios | 54. b ) | 0.00 | 0.00 |
| Información de políticas públicas locales y de la cartera de servicios | Horarios, precios públicos y tasas municipales de los servicios | 54. c ) | 0.75 | 1.00 |
| Información sobre gestión pública | Contratos (no menores) | 55 a) | 1 | 1 |
| Información sobre gestión pública | Datos estadísticos sobre contratos adjudicados | 55. b) | 1 | 1 |
| Información sobre gestión pública | Penalidades impuestas a contratistas | 55. c) | 0.5 | 1 |
| Información sobre gestión pública | Relación de contratos resueltos | 55 d) | 1 | 1 |
| Información sobre gestión pública | Contratos menores | 55 e) | 1 | 0 |
| Información sobre gestión pública | Convenios y encomiendas de gestión | 55 g) eta h) | 0.50 | 0.50 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Información sobre gestión pública | Subvenciones | 55. i ) | 1 | 1 |
| Información sobre el personal al servicio de las entidades locales | Ofertas de empleo público | 56 a) | 1 | 1 |
| Ámbito | Obligación de publicidadactiva | LILE | ¿se publica? | ¿se actualiza? |
| Información sobre el personal al servicio de las entidades locales | Formación del personal al servico de la entidad local | 56 b) | 1 | 1 |
| Información sobre el personal al servicio de las entidades locales | Representación sindical | 56 c) | 1 | 1 |
| Información sobre el personal al servicio de las entidades locales | RPT | 56 d) | 1 | 1 |
| Información sobre el personal al servicio de las entidades locales | Declaraciones de compatibilidad (del personal al servicio de la entidad local) | 56 e) | 1 | 1 |
| Información económico-financiera y presupuestaria | Presupuesto | 57. a) | 1 | 1 |
| Información económico-financiera y presupuestaria | Cuenta general | 57. b) | 0 | 0 |
| Información económico-financiera y presupuestaria | Estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera. | 57 c) | 1 | 0.5 |
| Información económico-financiera y presupuestaria | Ingresos y gastos | 57. d) | 1 | 0.5 |
| Información económico-financiera y presupuestaria | Período medio de pago a proveedores | 57. e) | 1 | 0.5 |
| Información económico-financiera y presupuestaria | Inmuebles municipales | 57 f ) | 0.5 | 0 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Información económico-financiera y presupuestaria | Retribución de representantes políticos | 57 g ) | 1 | 0.5 |
| Grado de cumplimiento de la transparencia y del acceso a la información pública (seguimiento) | Informe anual del estado de la transparencia | 66 | 1 | 1 |